

HILZPIDEAK

Abendua 2008

3



*Bakea eta Giza Eskubideen
aldeko hezkuntza*





"1989ko ekainak 5, Tian'anmen-eko plaza (Txina)"

"5 de junio de 1989, plaza de Tian'anmen (China)"

Hizpideak 3. Zk. Abendua 2008 Bakea eta
Giza Eskubideen aldeko hezkuntza

Hizpideak nº3 Diciembre 2008 Educación para la paz y
los Derechos Humanos

Erredakzioa eta argazkiak_Redacción y fotografías: EGK

Diseinua_ Diseño: Nemo Estudio

Egilea:

Laguntzen du:

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren laguntzarekin egina



Kultura Saila
Departamento de Cultura

Aurkibidea

0. Sarrera	5
1. EGK-k bakea arloan egindako lanaren gainbegiratu laburra	7
2. Hausnarketak eta adostutako ideiak	11
2.1 Bakea	11
2.2 Elkarrizketa	13
2.3 Bakerako hezkuntza	15
2.4 Indarkeria eza, hausnarketak eta aukerak	21
3. Ondorioak eta proposamenak	29
4. Bibliografia	33

0. Sarrera

*Hizpideak*en zenbaki hau bakeari buruzkoa da. Horren inguruan idazteko ideia 2007-2011 Plan Estrategikoa ezartzean eta plan horrek EGKren lan arloetan sorrarazten dituen aldaketak ikusi genituenean sortu zen. Hain zuzen ere, 2007an desagertu zen 2002an eraturiko bakearen arloa, eta haren ordeztu, “Justizia eta berdintasun baldintzak” lan arloa dago. Azken arlo horrek zenbait lan lerro ditu; besteak beste, “Gatazken ebazpena eta Biolentzia eza”. Lan berriarekin abiatzeaz gain, aldaketa horiek kontuan hartuta, egokitzen hartu zen bakearen arloan azken plan estrategikoa baino lehen garatutako ekimen eta proiektu guztiei buruz hausnartzea, eta ideiak bateratzea, lan arlo horrek jardun bitartean EGKk gehien landutako gai buruz. Baina ikuspuntu abstraktutik bakeari buruz hausnartzea eta gai horretan sakontzea ez da asmo bakarra; horrez gain, beharrezkoa da EGKk hemendik aurrera giza eskubideen, bakearen eta justizia sozialaren alde lan egiten jarraitzeko zer egin dezakeen pentsatzea. Izan ere, Kontseiluaren helburuetako bat (estatutuen 2. artikuluko b puntuan eta 6/1986 Legearen 2. artikulua b puntuan adierazi legez) honako hau da: «gazteen artean askatasunaren, bakearen eta giza eskubideen defentsaren balioak hedatzea (...)».

Hausnarketa honetan, gazte talde batek hartu du parte, EGKren zenbait elkarte ordezkatu. Hona hemen elkarteak: Eusko Gaztedi (EGI), Juventud Obrera Cristiana (JOC), Fundación EDE-Bakeola, Ezker Batuak-Berdeak Gazteak eta Nuevas Generaciones del Partido Popular del País Vasco (NNGG). Zenbait hilabetez egin dute lan gazte horiek, eta denbora horretan, zenbait dokumentu aztertu eta haietan azaltzen diren ideiei buruz hausnartu dute. *Hizpideak* egiteko, pentsaera desberdina duten pertsonen arteko elkarrizketa hartu da oinarritzat. Iritziak oinarritu eta eztabaidatu ostean, puntu komunak aurkitzea lortu da. Argitalpen honetan azalduko ditugu puntu horiek. Gainera, Mireia Urangak eta Asier Gallastegik ideiak garatzen eta sakontzen lagundu dute.

Argitalpen honek hiru kapitulu ditu: lehenengoan, labur-labur deskribatzen dira Kontseiluak bakarrik edo beste gizarte eragile eta erakunde batzuekin batera egindako ekimenak eta proiektuak; bigarren kapituluak, zenbait ataletan, bakea, elkarrizketa, bakerako hezkuntza eta indarkeria eza dira aztergaiak; eta hirugarren kapituluak, lan taldeak EGKk eta elkarteek gazteen artean bakearen kultura sustatzeko egiten duten lanari buruz hausnartutakoan lortutako ondorioak azaltzen dira.

1. EGK-k bakea arloan egindako lanaren gainbegiratu laburra

2002. urtean, 2002-2006 Plan Estrategikoa martxan jarri zenean, hasi zen garatzen EGKren bakea arloa, “bakean eta elkarbizitzan oinarrituriko gizartea eraki” lan ildo estrategikoan oinarritua, eta bake teknikariaren figura sortu zen. Harrezkero, zenbait motatako ekimenak eta proiektuak gauzatzen hasi zen Kontseilua. Ekimen eta proiektu horiek aztertu ditugu, hain zuzen, argitalpen hau egiteko. Baina ez dira horiek aztertu diren bakarrak; izan ere, 2002. urtea baino lehen, Kontseiluak zenbait proiektu garrantzitsu eta interesgarri burutu zituen, eta beste batzuetan hartu zuen parte, eta egokitzen jo dugu horiek ere aintzat hartzea.

Azterketa egin ostean, ondorioztatu dugu bakearen inguruan gehien landu diren gaiak bakerako hezkuntzarekin, elkarrizketarekin eta indarkeria ezarekin lotuta daudela. Hori dela-eta, gai horiei buruz hausnartu dugu argitalpen honetan ere. Askotarikoak dira Kontseiluak garatutako edo parte hartutako ekimenak eta proiektuak: iritzi artikulak, adierazpenak, ikastaroak, argitalpenak, etab.

Jarraian, ekimen eta proiektu horiek guztiak deskribatuko ditugu, labur-labur, eta haietako bakoitzaren ideiarik garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu.

Urteetan zehar, bakeari buruz hausnartu du Kontseiluak, baita bakeak Euskadin duen egoerari buruz ere. Ikuspegi zabaletik egin izan du beti hausnarketa hori, arreta indarkerian soilik jarri gabe. Zenbait hausnarketa Kontseiluaren barruan soilik hedatu dira, eta beste batzuk, berriz, gizarteari jakinarazi zaizkio. Esate baterako, *Bakea Euskadin* (1992) barne dokumentua dago. Dokumentu horretan, hau esaten da, besteak beste: hainbat motatako arazo handiak direla-eta ez dugula gizarte baketsuz mintzatzerik; ez indarkeriaren arazoa dagoelako soilik, baizik eta, gaur egun, ekonomia, politika, gizarte, kultura eta hizkuntza mailan ere arazoak daudelako.

2005. urtean, eta urte horretako batzarrerako, *Bakea* izeneko hausnarketa testua egin zen. Testu horretan, lehen eta hirugarren munduen arteko harremani dagokienez, hau onartzen zen: «ez dugu Bakea biziko, gizaki guztientzat bidezkoa den mundua sortzen ez dugun bitartean». Horrez gain, dokumentu horretan berresten zen Kontseiluak bakea ikuspegi zabalago batetik (politikarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin lotutako alderdiak kontuan hartuta) sustatzeko konpromisoa hartzen zuela, eta bakearen inguruan eztabaida eta hausnarketa esparruak sortzen ahaleginduko zela.

EGKren ibilbidea bakearen
alde lanean

Argitaratutako dokumentuei dagokienez, beste erakunde eta eragile batzuekin elkarlanean egindakoak nabarmendu behar dira. Adibidez, EGKk 1997an EDE Fundazioarekin eta Urtxintxa Eskolarekin batera argitaratutako liburua azpimarratu behar da: *Bakerako hezkuntzaren Euskal Liburuaren* 1. eta 2. liburukiak. Eusko Jaurlaritzak 2004an argitaratutako *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-formalaren esparruan* eta *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan* azterketak ere azpimarratu behar dira. EGKk eta EDE Fundazioak koordinatu zuten haietako azterketa lana.

Azpimarratu beharreko beste ekimenetako bat honako hau da: 2004 eta 2005 bitartean, EGKk eta beste gizarte eragile batzuek *Legegintzarako herri ekimena (LHE)*, *herrialde pobretuekiko justizia eta elkartasun gutun baterako* proposamena. 2007an Eusko Legebiltzarrak onartu zuen legegintzarako herri ekimen hori. Dokumentu horrek adierazten zuen hirugarren munduko herrialdeen eta lehen mundukoen arteko harremanak ekonomikoki mendekoak izateak pobrezia sortzen duela ekonomian, hezkuntzan, gizartean..., eta horrez gain, harreman horiek, autorrealizazio pertsonala eragozteaz gain, egoera bidegabeak sorrarazten dituela, baita indarkeriaz konpondu ohi diren gatazkak ere.

Ekimen mota horiez gain, eztabaida guneak eta topaketak ere antolatu dira, Euskadiko egoera politikoari eta baketzeari buruz eztabaidatzeko. Horren adibide, aipa dezagun gazteen «Zer zeregin dugu gazteok bakearen eraikuntzan?» eztabaida gunea. EGKk eta Gernika Gogoratuz-ek antolatu zuten 1999an. Halaber, 2001ean gai berari buruz antolatutako elkarrizketa guneak ere aipa ditzakegu. EGKren kideentzat nahiz kideak ez ziren gazteentzat antolatu ziren. Gune horietan, euskal gizartearekin, alderdi politikoekin eta abarrekin lotutako zenbait gai landu zituzten gazteek, eta Elkarrik antolatutako bake batzarrean aurkeztu zituzten lortutako ondorioak. Eta 2002 eta 2003 bitartean, EGKk *generoari buruzko gazte ontzi* bat antolatu zuen; hots, errealitatea genero ikuspegitik aztertzeo eztabaida gunea, eta besteak beste, genero indarkeriari buruz eztabaidatu zuten. 2004an, Ibarretxe Planari buruzko lan talde bat sortu zen, baina EGKren elkarteek soilik izan zuten parte hartzeko aukera. 2007an, *Guk ere badugu hitza bake prozesuan* bake foroak antolatu ziren.

Bakerako hezkuntzaren arloan, EGKk zenbait proiektu egin ditu, eta beste batzuetan hartu du parte. 1992an, EDE Fundazioarekin eta Urtxintxa Eskolarekin batera, *Bakerako hezkuntzaren Euskal Liburuaren* 1. eta 2. liburukiak argitaratu zituen.

Halaber, 1990eko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, koordinazio lan bat egin zuen EGKk EDE Fundazioarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean eta ez-formalean elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza zer egoeratan dagoen aztertzeo; azterketa horren emaitzak 2005ean argitaratu ziren.

2002tik 2006ra bitartean, Mondragon Unibertsitatearekin, Gernika Gogoratuz elkartearekin eta EDE Fundazioarekin batera, gazte elkarten esparruan gatazkak prebenitzeko eta kudeatzeko teknikei eta tresnei buruzko ikastaro bat antolatu zuen Kontseiluak. EGK partaidetza kudeatzeaz arduratu zen, eta gainerako erakundeak, berriz, ikastaroa emateaz.

2006an, giza eskubideei buruzko prestakuntza topaketa bat antolatu zen Kontseiluaren barruan, eta horren ondorioz, EGKren “Jarduteko Protokoloa” egin zen, giza eskubideak urratzen direnean EGKk nola jardun jakiteko.

2007an, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzako elkarteek eztabaida gunea sortzen lagundu zuen, eta halaber, Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzako Euskal Planaren barruan planteatutako jarduerak diagnostikatzeko eta proposatzeko eztabaida taldeetan hartu zuen parte.

Azkenik, *Euskal Gatazka hurbil* eta *Euskadi hurbilago* proiektuak antolatu zituen 2001ean eta 2007an, hurrenez hurren. Estatuko gazte elkarteentzat ziren proiektu horiek, eta helburu hau zuten, bereziki: elkarre horietako gazteei euskal errealitatea hurbiltzea.

2002 baino lehen, eta Euskadin nahiz Estatuan gazte asko nahitaezko soldadutza desagertzearen alde manifestatzen ari zirenean, EGKk mugimendu horren alde egitea erabaki zuen. Kontzientzia Eragozpen, Intsumisio eta Bakerako Hezkuntzaren Batzordea sortu zen.

Batzorde horrek *Kontzientzi Eragozpena. Txosten Informatiboa* liburua argitaratu zuen. Liburu horretan, kontzientzia eragozpenaren historia berrikusi zen, eta EGK gai horri buruz zer jarrera zuen azaldu. Garai berean, *Militarismoa, sodaduzka, zertarako?* informazio-dokumentua egin zuen. Horrez gain, parte hartze aktiboa izan zuen intsumisioari buruzko kanpainetan.

1999an, *Bakerako Hezkuntzaren Euskal Liburuaren* bigarren liburukia argitaratu zen. Liburuki horretan, Batzordeak, beste gizarte eragile batzuekin batera, orduko gatazken eta militarismoaren arteko lotura aztertu zituen, baita orden militarren nagusitasunaren ondorioak eta indarkeria ezaren bi estrategia ere (*Gizarte alternatiba antimilitarista* eta *Desobedientzia zibila*).

2002. urteaz geroztik KEM-MOCek antolatzen duen Eragozpen Fiskalaren Kanpainan laguntzen du. 2003an, Irakeko gerraren aurkako protestetan hartu zuen parte, Euskadin eta Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin batera.

Horrez gain, eta duela zenbait urtetatik hona —hain zuzen, duela sei urtetik hona—, Euskadin egiten diren Indarkeria Ez Aktiboari buruzko Jardunaldietan hartzen du parte Kontseiluak. Besteak beste, Lokarri eta Bidea Helburu elkarteek sustatzen dituzte jardunaldi horiek.

Hortaz, argi dago giza eskubideak babesteko eta gazteen artean bakea sustatzeko lan handia eta askotarikoa egin dela. Beharrezkoa da argi eta garbi adieraztea ekimen eta proiektu horiek guztiak bakearen ikuspegi positibo eta zabal batean oinarrituta daudela; hau da, indarkeria ez da aztergai bakarra, baizik eta justizia sozial handiagoa sustatu nahi da. Hain zuzen ere, orain arte egindakoa aztertuz gero, ohartuko gara dena bakearekin eta haren ikuspegi positiboarekin lotutako zenbait kontzepturi buruzkoa dela. Hona hemen kontzeptuok: elkarrizketa, hezkuntza (bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza, eta bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza) eta indarkeria eza. Hori dela-eta, hurrengo kapituluan, gai horietan sakonduko dugu, eta ez beste batzuetan.

2. Hausnarketak eta adostutako ideiak

2.1. Bakea

Bake kontzeptua bi ikuspegitatik har daiteke aintzat: ikuspegi negatibotik eta ikuspegi positibotik. Ikuspegi negatiboak zuzeneko indarkeriarik eza azpimarratzen du (hauteman daitekeen indarkeria mota). Bakea *gerrarik eza* baino ez litzateke izango. Bake kontzeptuaren ikuspegi positiboaren arabera, berriz, bakeak zuzeneko indarkeriaren maila txikitzea dakar, bai eta, aldi berean, justiziaren eta bizikidetzarako kulturaren maila handitzea ere. Egiturazko eta kulturako indarkeria ezabatzea du helburu, eta halaber, harmonia soziala eta den-denon eskubideekiko errespetua lortzea¹. Beste bi modutan ere defini daiteke: bataren arabera, bakea «pertsonarteko eta inguruarekiko berdintasunezko harreman hartzen da, eta berdintasun hori maila guztietan ematen da (afektiboa, ekonomikoa, sexuala, soziala, kulturala, etnikoa, hezkuntzako eta erlijioa)»; bigarrenaren arabera, bakea «justiziaren eraketa aktiboa» izango litzateke².

Gatazka bizitzari atxikitako zerbait dela uste da. Kontzeptu horren ikuspegi nagusiak arazotzat hartzen du gatazka, txartzat eta desatsegintzat. Hala ere, gero eta egile gehiagok —besteak beste, John Paul Lederach— diote gatazka «helburu bateraezinak dituzten pertsonen arteko interakzioa» dela³. Gizakiaren berezko fenomeno da. «Banakotasun desberdinak» gara, eta harremana izaten dugu elkarrekin, eta harremanak eta interakzioa izatean, gure arteko desberdintasunak azaleratzen dira; izan ere, bestelako beharrak eta interesak izan ditzakegu, eta hor sortzen da gatazka. Nola heltzen diogun, gatazka aldaketarako faktore positiboa izan daiteke, ala suntsitzailea. Gatazka modu positiboan konponduz gero, aldaketa gertatzen da, eta horrek esan nahi du «bizi ditugun gatazkak identifikatu behar ditugula, eta haiei aurre egin, haien kausak ikertu eta kausa horiei erantzun positiboa eman, pertsonatzat hazi ahal izateko»⁴; gatazka indarkeriaz konpontzen denean, suntsitzaile bihurtzen da gatazka hori, eta orduan, ez du garapen pertsonalerako aukerarik ematen, alderantzizkoa eragiten du, hain zuzen.

Bakearekin eta gatazkarekin lotuta dagoen beste kontzeptu bat **indarkeria** da, baina komeni da indarkeria eta agresibitatea bereiztea. Agresibitatea gizakion jarrera naturala da, eta horri esker, «espezia elikatzea eta iraunaraztea lortzeko erreakzio-ahalmena dugu»; (...) «bizitzeko baina ez biziaren aurka borrokatzeko jarrera da»⁵. Agresibitatearen kontrakoa pasibotasuna da. Hala ere,

¹ Eusko Jaurlaritzak eta EDE Fundazioa: *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-formalean*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentralea, Vitoria-Gasteiz, 2004, 17-18. or.

² Bakeola eta EGK: *Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza*, 2007.

³ Eusko Jaurlaritzak eta EDE Fundazioa: *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-formalean*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentralea, Vitoria-Gasteiz, 2004, 19. or.

⁴ EGK, EDE Fundazioa eta Urtxintxa: *Bakerako hezkuntzaren euskal liburua*, 1. lib., Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Bilbo, 19 or.

⁵ EGK, EDE Fundazioa eta Urtxintxa: *Bakerako hezkuntzaren euskal liburua*, 1. lib., Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Bilbo, 20 or.

agresibitateak potentzialtasun positiboa duela onartzeak ez ditu indar suntsitzaila eta indarkeria legitimatzen; izan ere, agresibitatea eta indarkeria ez dira gauza berberak. Esan daiteke indarkeria gizakiaren jarrera naturalaren (agresibitatea) degenerazioa dela. Gizakiek soilik erabiltzen dute indarkeria; hortaz, hautazkoa dela baieztatu daiteke. Hona hemen indarkeria zer den: «kalte fisikoa, psikologikoa, soziala edo ingurumenekoa sortzen duten eta/edo pertsonen beren giza potentziala garatzea eragozten dieten ekintzak, hitzak, jarrerak, egiturak edo sistemak»⁶.

Alabaina, gaurko gizarteak indarkeriaren erabilera goesten du. Indarkeriarik handiena erakusten duena talde txiki bateko buru bihurtzen da, eta, hauteskundeetan, kanpainako aholkulariek «agresibitatea» erakusteko eskatzen diete politikarici, boto gehiago erakartzeko.

Txikitatik ikusten ditugu indarkeriaren erabilera goesten duten irudiak, bideo-jokoak eta filmak, besteak beste. Indarkeria eta boterea lotzen dituzte haiek guztiak, eta estetika bat sortzen dute indarkeriaren inguruan; izan ere, ohorearekin ere lotzen dute. Hala ere, gutxi erakusten dituzte pertsonen nahigabea, beldurra, heriotza eta sufrimendu konkretuak. Hots, ez dituzte erakusten kate estetiko-ekonomiko-heroiko horren amaieran daudenen aurpegia eta bihotza.

Justizia sozialaren, garapenaren eta giza eskubideen sinonimotzat hartzen da bakea

Bestalde, gure mikroespazioetan ere txertatzen da indarkeria. Gure kulturean, oro har, ondo iritzi zaie oihuei eta zaplastakoei hezkuntza elementu gisa. Hori dela-eta, oso erraza da indarkeria agresio bihurtzea, frustrazio-, estres- eta ezintasun-egoeran agresibitatea handitu egiten baita. Horrez gain, badakigu agresioak edo zuzeneko indarkeria ekintzak jasan izan dituzten pertsonen agresioak egiteko joera dutela. Horrenbestez, oso garrantzitsua da hezitzaileak hezte eta hezkuntza testuinguruetan indarkeriaren erabilerari legitimotasuna kentzea.

Gainera, barneratu izan ditugu injustiziatzat edo egiturazko indarkeriatzat hartutako *status quo* bat aldatzeko armak erabiltzea erabaki duten talde antolatuen diskurtsoak. Komeni da diskurtso

⁶ Bakeola eta EGK: *Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza*, 2007.

horiei eta haien eraginkortasunari buruz etikaren eta, halaber, pragmatismoaren ikuspegitik hausnartzea, eta indarkeriarik gabeko borroka estrategiei buruzko ezagutza handitzea; izan ere, horren inguruko adibide historikoak aurkituko ditugu, baina, bestalde, gaur egun ere garatzen ari da (ikus www.newtactics.org).

Bestalde, **balio** jakin batzuetan oinarritu ezean, bakea lortzea oso zaila da, edo ia ezinezkoa. Oinarrizko balio horietako batzuk pertsonaren duintasuna, askatasuna eta bizia dira; bizia gizakiaren existentzia beratzat hartua, hori gabe ezinezkoa izango bailitzateke «existentzia, zentzu zabalean, biziak arlo sozialean, politikoan, zibilean eta kulturean berekin duena, alegia»⁷.

Dena den, ezin gara bakeaz mintzatu askatasunaren zutabea hondatuta dagoen bizi testuinguru batean. Baliteke ikusteko moduko zuzeneko indarkeriarik ez egotea, baina askatasuna (hala nola, adierazpeneko, biltzeko, aldarrikatzeko, autodefentsarako eta garapen kultureko askatasunak) ez dagoen neurrian, egiturazko indarkeriaz hitz egingo dugu. Hori ikusten dugu, eskuarki, diktaduretan; izan ere, errepresio ikaragarri baten ostean biztanleak beldurrean bildu eta, itxuraz, bakean bizi dira.

Ildo horretan, esan behar da aldaketa prozesuek edo adiskidetze sozialeko prozesuek ezin dutela iragana estaltzean oinarritu. Memoria historikoak (belaunaldirik belaunaldiko transmisioa) aktibo jarraitzen du gizartean, norbanakoen eta kolektiboen narrazioen bidez. Hori dela-eta, memoria berreskuratzea oso garrantzitsua izan da hainbat bake prozesutan (besteak beste, Hego Afrika, Guatemala eta Espainiako Gerra Zibila, memoria berreskuratzeko egungo mugimenduaren bidez), eta halaber, oso garrantzitsua izan da galdera honi erantzutea: Memoriaren inguruko zer lan-motak laguntzen die justiziari, bakeari eta adiskidetzeari?

Azken batean, eta bere egunean EGKk adierazi bezala, justizia sozialaren, garapenaren eta giza eskubideen sinonimotzat hartzen da bakea, eta eutsi beharreko konkista bat baino gehiago, prozesu dinamikoa da, lortu behar dugun helburua⁸. Horretarako, beharrezkoak dira indarkeriarik gabeko jarrerak; besteak beste, hitz egiten hastea, denon artean elkarren kontrako beharrei eta interes konponbidea aurkitzeko.

2.2. Elkarrizketa

EGKren iritziz, elkarrizketa, bortxaren edo presioaren pean ez dagoenean, oso tresna baliagarria da edozein motatako arazoak edo gatazkak konpontzeko⁹. Elkarrizketaren bidez, gizakien arteko desberdintasunak konpontzen dira, eta elkarrizketa horretan parte hartzen dutenen ekarpena eta aberastea sustatzen da.

⁷ Eusko Jaurlaritza: *Bakerako eta Giza eskubideetarako Euskal Hezkuntza Plana (2008-2011)*, 2007, 17. or.

⁸ Euskadiko Gazteriaren Kontseilua: *Bakea Euskadin*, 1992.

⁹ EGKren jarduteko printzipioetako bat, EGKren 2007-2011 Plan Estrategikoan onartua.

Ildo horretan, urte batzuetan, bakeari buruzko berariazko lan arloa sortu baino lehen, zenbait gairi buruz eztabaidatzeko guneak sustatu ziren. Eztabaida gune horiek guztiek ideia berbera zuten oinarri: gazteok, gizartearen zati garen aldetik, lan egin behar dugu gizarte baketsua eta adiskidetuera eraikitzeko.

Eztabaida gune horietan, zenbait metodologia erabili dira elkarrizketa bultzatzeko. Haietan guztietan nahi izan da sentsibilitate askok parte hartzea, eta haiek askotarikoak izatea. Helburua ez zen paper batean zenbait ideia idaztea. Hain zuzen ere, hauek izan dira: hezkuntza prozesua izatea, parte hartzen zutenentzat; denek denengatik ikastea; beste pertsona, errealitate, bizipen eta ideia batzuk ezagutzea; desberdintasunak konpontzen ikastea, entzunez eta enpatiaren eta komunikazioaren bidez; eta guneak sortzea, ideia trukearen eta hausnarketaren bidez helburuak zehazteko, egoera eta/edo errealitate bidegabeak eraldatze aldera eta denon artean bizikidetzat guneak sortze aldera.

Eztabaida gune horien bidez, ikusi dugu elkarrizketak hasieran oso urrun zeuden jarrerak hurbiltzeko aukera ematen duela. Pertsonak gune lasaia badute (mendekotasun harremanik gabekoa, elkarrekiko errespetuan oinarritutako komunikazioa ahalbidetzen duena — arrazoizkoa, deskalifikaziorik gabekoa, pertsonarekiko edo haren ideiekiko balio judiziorik gabekoa, bortxarik eta presiorik gabekoa—, nori bere ideiak adierazteko, elkarri entzuteko eta hitz egiteko aukera ematen duena), ikusiko dute puntu komunak dituztela, eta elkarren artean egon daitezkeen desakordioak konpontzeko aukera izango dute; izan ere, baldintza horiek betetzen badira, konfiantza eta sinpatia sortzen da elkarrizketan parte hartzen dutenen artean.

Elkarrizketan aritzea ez da hitz egitea, entzutea ere eskatzen du

Elkarrizketan aritzea ez da hitz egitea. Entzutea ere eskatzen du, eta ikasi egin daitezkeen jokabide batzuk izatea. Oro har, bakea lortzeko, beharrezkoa da balio, jarrera eta jokabide jakin batzuk ikastea. Kontuan hartu behar dugu gure gizartean, tradizionalki, gatazkak indarkeria fisikoaren edo ahozko indarkeriaren bidez konpondu behar direla uste izan dela beti, eta azkenean, mendekotasun eta botere egoerak sortu eta giza eskubideak urratzen direla; ez soilik mundu mailako gatazkekiko, baizik eta maila txikiagoetan ere (adibide asko aipa daitezke, baina, agian, genero indarkeria eta *bulling* delakoa dira aipagarrienak). Bakea ibiltzea merezi duen bidea da, baina beharrezkoa da bakearen gainean *ibiltzen* ikastea, eta horretan, bakerako hezkuntza oso baliagarria izan daiteke.

2.3. Bakerako hezkuntza

Hezkuntzak honako hau izan beharko luke: pertsonak, ingurunetik (eskola, familia, gizartea, komunikabideak...) iristen zaizkion estimuluen (informazioa, emozioa, sormena, etab.) eragina jaso ondoren, munduan egoteko modua eta munduaren ikuspegi berezia sortzea, bere gaitasunak etengabe garatuz, eta ingurune pertsonal, sozial eta naturalarekin lotura eta konpromiso afektiboa eta konstruktiboa etengabe garatuz.

«Gizakia harremanak izateko izakia da, eta ez kontaktuak soilik izatekoa; hau da, munduan nago, baina baita munduarekin ere. Gizakia errealitatera irekitzen denean, harremanetarako izakia sortzen da; horri munduarekin egotea esaten diogu»¹⁰.

Zalantzarik gabe, hezkuntzak bizitzeko egokiagoa izango den mundua sortzen lagun dezake. Mundu horretan, hobeak izango dira izaki guztien eta planetaren beraren bizi baldintzak (bake positiboa, bai biziari), eta gizakien arteko interakzioetan ezinbestez sortzen diren gatazken energia konstruktiboa izango da; hau da, sistemak leheneratuko ditu.

Dena den, Saramagok dioen bezala, «gizakiak ez du sekula jaso bakerako hezkuntza»¹¹.

Bakeak (bizi duintzat ere ulertua, gure gaitasun pertsonalen eta kolektiboen garapentzat ulertua) dimensio ugari ditu hiru ardatz nagusiren inguruan. Hona hemen ardatz horiek: norberaren bakea, bake soziala eta naturarekiko bakea.

Hezkuntzak hiru ardatz horiek aberasten lagunduko badu, komeniko litzateke haietan guztietan lotura osasuntsuak eta sortzaileak sortzea eta sendotzea.

Loturak sendotu behar direla esatean, hezkuntzan ikuspegi sozio-afektiboa (ikasketa-irakasketa prozesuak, esperientzia eta bizipenen bitartez, gizabanakoaren eta taldeen eraldaketarako hausnarketa bultzatzen dutenak) erabiltzea garrantzitsua dela esan nahi dugu. Ikuspegi horretan, errespetua, besteekiko interesa, zaindu edo lagundu nahia, eta hobetzen lagundu nahia lotura sentimendutik sortzen dira, eta ez agindu etikotik.

Hausnarketa hori aintzat hartuta, hezkuntzak aipatutako mailetan bakeari lagun diezaion, komeni da loturak sendotzea, sei mailatan gutxienez:

1. Norberarekiko loturak

Pertsona batek bizimodu osasuntsua garatzeko eta testuinguru hurbiletan eta sozialetan harreman konstruktiboak ezartzeko aukera izan dezan, garrantzitsua da ahalik eta bake pertsonalik handiena izatea. Hori garrantzitsua da, norberaren ongizaterako, eta beste pertsona

¹⁰ FREIRE, P.: *La educación como práctica de la libertad*, Siglo XXI, Madril, 1969.

¹¹ FERNANDEZ, J.: *Ser humano en los conflictos*, Alianza Editorial, Madril, 2006.

batzuekin ditugun gatazketako asko gure barne gatazken proiektzioak direlako. Hori dela-eta, garrantzitsua da hauek aintzat hartzea:

- Adimen emozionala.
- Pentsamendu kritikoa.
- Osasun fisikoa.
- Erlajazioa.
- Sormena.
- Asertziozko norgehiagokarako eta sortzeko lankidetzarako ahalmena.
- Bizitzarako oinarrikoak diren trebetasunak ikastea: janaria prestatzen, musika tresna bat jotzen, baratzea lantzen, espazio digitala maneiatzen, etab.
- Jakingurari eta aurkitzeko gaitasunari eustea, eta sustatzea.
- Inklusioa.
- Etengabeko prestakuntza, edozein bizi proiektu garatu ahal izateko.

2. Beste pertsonetikiko loturak

Beste esparru garrantzitsu bat pertsonarteko bakea da: bizikidetzaren bidez gatazkak ikasteko aukeratzat hartuz, eta harremanak leheneratuz.

Maila hori indartzeko, hau behar da:

- Hezkuntza eragile nagusiak eredu koherentea izatea, jarrera, balio eta jokabideei dagokienez.
- Jarrerak eta gaitasunak garatzea, aktiboki eta sormenez entzuteko, asertiboki komunikatzeko, enpatia garatzeko, eztabaidatu beharrean elkarriketan aritzeko, konfrontazio asertiboa garatzeko, negoziatzeko, bitartekotzan jarduteko eta adiskidetzeko.
- Harreman positiboak ahalbidetuko dituzten egiturak eratzea. Bizikidetzaren baketsua garatuko bada, garrantzitsua da egungo egiturazko esparruak berraztertzea eta gatazkak gehiegi ez *psikologizatzea*. Komeni da aztertzea espazioek, denboren antolaketak, arauak, baliabideen banaketak eta abarrek nola sorrarazten dituzten gatazkak, eta beste alde batetik, zer egiturak errazten duten ongizatea eta gatazken kudeaketa sortzailea. Esate baterako, bizikidetzaren batzordeak eta bitartekotza zerbitzuak sortzea, eta lan talde heterogeneoak antolatzea, besteak beste.

Inguruko pertsonekin lotura adierazgarriak ezarri hazteak —pertsona horien duintasun berdintasuna onartuz eta haiek guztiak errespetatuz— eguneroko ongizatea handitzea eragiten du eta trebatu egiten gaitu, eta testuinguru zabalagoetan —egungo zein etorkizuneko gizarte ehunean— parte hartzeko oinarriak finkatzen ditu.

Maila honetan, bereziki garrantzitsua da kontzeptu hau barneratzea: indarkeria eza aktiboa, Gandhiren ekintzaren oinarriko ardatzetako bat.

Indarkeria eza aktiboak esan nahi du irainaren edo agresioaren aurrean erantzun aktiboa eman egin behar dela, etsipenarekin edo otzantasunarekin zerikusirik ez duena. Indarkeria eza aktiboak, erantzun bortitza emateari uko egiten dionez, erasotzaileari itzultzen dio bere

indarkeria. Mugimendu sozialekin lotu ohi dugu kontzeptu hori, baina pertsonen arteko harremanetan ere aldaketak eragin ditzake.

3. Jarduerekiko loturak

Norbaitek, probokatzaile, esan zuen haurrak galdera batekin iristen direla eskolara, eta puntu batekin irteten direla.

Bakerako hezkuntza pertsona bakoitzaren potentzial osoa garatzea ahalbidetzen duen hezkuntza da, eta norberaren eta kolektiboaren ongia lortzera bideratzen du. Horretarako, zenbait jarduera eta testuinguru behar dira, honako hau bultzatzeko: jakingura, aurkikuntza, ikasi nahia, pentsamendu kritikoa eta sortzailea, eduki adierazgarriak, hainbat adimenen garapena eta aplikazioa, eta ikuspegi sozio-afektiboa (bizipen berezia ikasketa iturri nagusia izatea ahalbidetuko duena).

4. Beste adin eta belaunaldi batzuekiko loturak

Bakerako hezkuntzaren oinarrizko ardatzetako bat aniztasunaren itzelezko potentziala aprobetxatzeko ahalmena da, eta horrek sortzen dituen erronkak gainditzea. Testuinguru homogeneoek ez dute hainbeste gatazkarik sortzen, baina sortzeko ahalmen txikiagoa dute. Ildo horretan, zenbait adin eta belaunalditako pertsonen ikasteko eta elkar aintzat hartzeko prozesu dinamiko batean harremana izateko aukera ematen dieten espazioei esker, komunitate osoa ikasteko iturria izan daitekeela ikas dezakegu.

5. Gizartearekiko loturak

Bakerako hezkuntzak gure gizartearen erronkei buruz behar dugun informazio guztia eman behar digu. Hauek dira erronka horietako batzuk: zenbait biztanleria sektoreren pobrezia iraingarria eta hura iraunarazten duten zirkuituak; egungo sistema ekonomikoak berekin dituen esplotazio dinamikak; indarkeriazko gatazken eta arma industriaren interesen arteko lotura; energia industria; mehatxu nuklearra; gizakien trafikoa; giza eskubideen zaurtzapena; eta kulturak iraunarazteko eta garatzeko zailtasunak.

Halaber, erakutsi behar du zeinen aberatsak diren gizakiak, injustizia sozialak indarkeria ezan oinarrituta eraldatzeko, garatu dituen estrategiak eta tresnak: bakearen historia; bakearen aitzindariak; indarkeria ezan oinarritutako borroka estrategiak; eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko egun lanean ari diren mugimenduak, erakundeak eta baliabideak.

Hezkuntzak bizitzeko egokiagoa izango den mundua sortzen lagun dezake

Eskuarki, arlo horretako jarduera gehienak esparru hauetan sar ditzakegu¹²:

- Indarkeria ezan oinarritutako gatazken eraldaketarako hezkuntza.
- Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza.
- Demokraziarako hezkuntza.
- Kulturarteko hezkuntza.
- Genero berdintasunerako hezkuntza.
- Nazioarteko politikari eta ekonomiari buruzko hezkuntza.
- Garapenerako eta justizia sozialerako hezkuntza.

6. Naturarekiko loturak

Kontuan hartuta izaki bizidun guztiok biziarekin eta planetaren ehunarekin lotura sakon-sakona dugula, naturarekiko bakearen alde ere egin behar dugu lan.

Mendebaldean garatu ditugun bizimoduak (mundu osoan izugarri erakargarriak) sortzen dituen erronken berri izan behar dugu. Izan ere, bizimodu horri eusteko, hau egin dugu, besteak beste: natura ustiatu, baliabide naturalak agortu, kutsatu, beroketa globala eragin, energia krisia sortu eta ura lortzeko gatazkak sorrarazi.

Gainerakoekin harremanetan gauden izakiak garen aldetik, kontuan izan behar dugu zer sufrimendu eta tortura eragiten diegun animaliei gure elikagaien, kosmetikoen eta botiken industrian.

Giza Eskubideen Gutunaz gain, beste dokumentu bat sortu zen 2000n: Lurraren Gutuna, puntu horiek guztiak hartzen dituen erreferentzia ona.

Lan mailak

Bakerako hezkuntzaren oinarritzko alderdietako bat hau da: *nola* egiten dugun lan. Beharrezkoa da baliabideen eta helburuen artean koherentzia egotea. Gandhiren esaldi ospetsu batek hau dio: «Ez dago bakea lortzeko biderik, bakea da bidea». Ildo horretan, bakearen pedagogiak koherentea izan behar du transmititzen dituen printzipio eta balioekin. Hona hemen: berezitasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetu sakona; elkarrizketa oinarritzko tresna gisa, bai gatazkak kudeatzeko, bai talde mailan aurreratzeko; eta hezkuntza testuinguru demokratikoak eta partaidetzazkoak (testuinguru horietan, elkarrekiko laguntza, pentsamendu kritikoa eta denek ekarpenak egitea eta denek ikastea ahalbidetzen duen komunitate batean elkarreragiteko kontzientzia eguneroko bizipena izatea lortzen da).

Horrez gain, zentzu zabalean ulertu behar da bakerako hezkuntza; gizarte osoaren bakerako hezkuntzat hartu beharko genuke, eta balio eta arau sozialak sortzen eta hedatzen laguntzen

¹² EURED: «The EURED Teacher Training Programme. Curriculum of a European Peace Education Course», Eured, Villach (Austria), 2002.

duten eragileek parte hartu beharko lukete: hezkuntza formalak eta ez-formalak, maila guztietan; komunikabideek; sindikatuak; politikariek; poliziak; etab.

John Paul Lederachen *eraldaketa sozialeko matrizea* delakoaren eskemari jarraituz, hiru maila bereizi behar ditugu¹³: **oinarrizko maila**, pertsonakiko zuzeneko lana (ikasgela, aisialdiko taldea, sindikatu bateko kideak, etab.); **erabaki politikoen maila** (kontseilaritzak edo ministerioak, haien erabakiek kolektibo handietan baitute eragina); eta **tarteko mailak** (aholkularitza, ikerketa eta prestakuntza mailak, etab.), aurreko bien arteko giltzarri gisa jarduten duena.

Beste lan ardatz batean, testuinguru berean bereiz ditzakegu **esku-hartzearen mailak**.

Demagun aisialdiko talde bat. Kasu horretan, hau egin dezakegu:

1. Egoera jakin batean norberaren ongizatea eta interesak zainduko dituzten esku-hartzeak:
 - Orientazio pertsonala, baliabideen banaketa bidezkoa...
2. Harremanen kalitatea zainduko duten esku-hartzeak:
 - Egoera gatazkatsuetan, entzuteko, enpatia izateko eta konponbideak elkarrizketaren bidez bilatzeko testuingurua ahalbidetzea.
3. Mikrosistemaren kalitatean eragina izango duten esku-hartzeak:
 - Taldearen funtzionamendu egiturak berraztertzea.
 - Arauei buruzko hausnarketa.
 - Bizikidetzaren batzordeak sortzea (bitartekotza eta justizia leheneratzailea ardatz nagusiak izango dira).
 - Jarduteko protokoloak sortzea.
 - Taldearen bizikidetzaren kulturari buruz hausnartzea.
 - Gizarte kontzientziako lana ahalbidetzea.
4. Makrosistema, hezkuntza sistema ez-formala eta gizartea bera aintzat hartuko duten esku-hartzeak:
 - Gatazkak maneiatzeko trebetasunei buruzko prestakuntza ematea hezkuntza ez-formaleko komunitateari.
 - Arauak aldatzea, hezkuntza ez-formalaren funtzionamendua hobetzeko.
 - Gizarte gaiei buruzko prestakuntza ematea, injustiziez, desberdintasunez eta indarkeriaz ohartzeko, eta haien aurrean nola jokatu jakiteko.

¹³ LEDERACH, J. P.: «Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas», Bakeaz-Gernika Gogoratuz, Bilbo-Gernika.

Testuinguruan jartzea

Aurrekoaz gain, beste puntu bat adierazi behar da: bakerako hezkuntza testuinguruan jarri beharra, espazioan eta denboran.

Zer garaitan gauden, alderdi batzuk edo beste batzuk azpimarratu behar dira. Harremanak hierarkikoak eta autoritarioak direnean, komunikaziorako lekurik ez dagoenean, eta indarkeria fisikoa erabiltzea ohikoa denean, zenbait gauza azpimarratu beharko dira, eta harremanetan mugarik ere ez dagoenean, berriz, beste batzuk.

Indarkeria maila handiko gizarte testuinguru batean eta gizarte ongizate handiko testuinguru batean —gatazka eta indarkeria gutxi dituenen—, ez da gauza bera izango.

Paulo Freirek dioen bezala, hezkuntza oro politika da, eta hezkuntzak gizarte testuingurua interpretatzen lagundu behar du. «Ez dut inoiz ere onartu hezkuntza jarduerak hitza irakurtzera —testua irakurtzera— mugatu behar duenik, baizik eta testuingurua irakurri ere egin behar duela»¹⁴.

Hezkuntzak, berez, ezin du bake egoerarik ezarri, ezta giza eskubideak urratzearekin lotutako alderdiak konpondu ere, baina ezinbestekotzat hartzen da bakea lortzeko helburua duen prozesu orotan, eta gatazkak prebenitzeko jardueratzat¹⁵.

Beraz, bakerako hezkuntza dimentsio anitzeko kontzeptua da¹⁶. Bakerako hezkuntza definitzeko, beharrezkoa da aurrez hezkuntzatat eta baketzat zer ulertzen den zehaztea.

Gure iritziz, bakerako hezkuntza prozesu dinamikoa, jarraitua eta etengabea da, eta xede hauek ditu: gatazkei heltzeko gaitasuna sustatzea, sormenean eta indarkeria ezan oinarritutako ikuspegi batetik; eta berdintasun, justizia, errespetu, askatasun eta elkartasun balioak kontzienteki bizitzea.

Bakerako hezkuntza dimentsio anitzeko kontzeptua da

¹⁴ FREIRE, P.: *Pedagogía del oprimido*, Siglo XXI, Madrid, 1970.

¹⁵ Perez, G. (koord.): *Educación, paz y derechos humanos. Ensayos y experiencias*, Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de occidente (Mexiko), 28. or.

¹⁶ Perez, G. (koord.): *Educación, paz y derechos humanos. Ensayos y experiencias*, Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de occidente (Mexiko), 27. or.

Ikuspegi horren arabera, «pertsonei garapen integralerako behar dituzten baliabide guztiak ematen dizkien prozesua» da hezkuntza¹⁷; hezkuntza integrala da (pertsonearen konplexutasuna hartzen du), aktiboa (nor bere hezkuntzaren protagonista da) eta askatzailea (pertsoneak kritikoki, eta bere kabuz —gizarte presiorik gabe— erabaki dezan)¹⁸. Bake positiboaren kontzeptuan oinarritzen da. Berdintasunarekin eta justiziarekin lotuta dago, baita demokraziaren, garapenaren eta giza eskubideen kontzeptuekin ere lotuta¹⁹. Halaber, gatazkaren ikuspegi sortzailean ere oinarritzen da. Erabiltzen den metodologiak ikuspegi sozioafektiboa du: norberaren bizipenaren zati bat eta bizipen horrek sortzen dituen sentimenduak, hausnarketa eta eraldaketa lortzeko: nabaritu > hausnartu > ekin²⁰.

2.4. Indarkeria eza, hausnarketak eta aukerak

Indarkeria ezari buruz hausnartzera bultzatzen gaituena indarkeriaren alternatiba eraginkorra eta erakargarria izan daitekeelako tesia da. Badugu sortzerik suntsitu beharrik gabe?

Bakeari, indarkeria ezari eta haien faltari buruz —eta, ideia asoziazioz, minari eta nekeari buruz— hausnartzean, zailtasun handi batek eragozten digu: leinuen arteko komunikaziorik ezak, *hemengo*en eta *hango*en ondorengo arteko komunikaziorik ezak, beren eskuinalderako eta ezkeralderako mugimenduekin. Olioia eta ura bezalakoak direlako susmo izugarria sorrarazten dute: nahastu ondoren, denboraren poderioz, bakoitza bere lekura itzultzen da, bestearen tanto bakar bat ere berekin hartu barik.

Urrunetik begiratuta dentsitate desberdineko likidoak diruditen pertsonak dira, bat egitea debekatuta dutenak, elkarrekin topatzea eta elkar ulertzea debekatuta dutenak.

Gure herrietan eta auzoetan, energia asko erabili da zubiak eratzeko, eta emaitza garrantzitsuak lortu dira akordio txikietan, eta etsigarriak, desakordio handietan.

Kapuscinsky kazetariak, bestearekiko akordioari buruzko zenbait hausnarketa biltzen dituen liburu batean, honako hau idatzi zuen: «Galtzadak ez du zertan izan etsaien zutabeek guregana iristeko erabiliko duten bidea; erromesez jantzitako jainko-jainkoretako bat gure etxera ekarriko duen bidea ere izan daiteke»²¹.

¹⁷ ESK, EDE Fundazioa eta Urtxintxa: *Bakerako hezkuntzaren euskal liburu*, 1. lib., Euskadiko Gazteriarren Kontseilua, Bilbo, 1997, 20 or.

¹⁸ Bakeola eta EGK: *Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza*, 2007.

¹⁹ PEREZ, G. (koord.): *Educación, paz y derechos humanos. Ensayos y experiencias*, Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de Occidente (Mexiko).

²⁰ Bakeola eta EGK: *Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza*, 2007.

²¹ KAPUSCINSKI, R.: *Encuentro con el otro*, Crónicas Anagrama.

Pertsona ukatzea

Gatazkak hazteko aukera izan daitezke, beti ere, gatazkaren *arauketa* horren emaitza ni gizaki gisa akabatzea ez bada. Bestea *etsaitzat* eta objektutzat (subjektua da) hartzera garamatzen eraketa da gizatasuna kentzeko prozesurik larriena.

Gure errealitatean, pertsonak hiltzen dituen indarkeria da izozmendiaren punta eta indarkeria horren bertsiorik mingarri eta muturrekoena. Ezin izango dugu inoiz ere nahi bezain ozen oihukatu, gureaz bestelako iritziak dituztenak beldurtzea helburu duten ekintzak behar bezala arbuiauzeko, pertsonak oztopotzat edo etsaiaren sinbolotzat hartu eta haiek akabatzea erabakitzen dutenak behar bezala errefusatzeko.

Pertsonen bizkar emateko beste modu batzuk daude, egon dira eta egongo dira. Ideiak adierazteko eta haien inguruan antolatzeke eskubidea, elkarrizketarako eskubidea eta abar ukatzeak gizonak eta emakumeak bereiztea ere du berekin. Estrategia horiek, erantzukizunak eta botere egituren tresnak zehazteko modu asko daude.

Kosmoikuspeirik ekologistenari dagokio, Lur planeta espazio ontzitzat aurkezten duen metafora. Gizakiek tripulatutako objektu hegalaria handia da Lurra, eta horretan, erantzukizun *ranking* batean, aginte nagusietan, aldizkako sufragioen bidez aukeratutako politikariak daude, eta komandante leinu bat, industria eta finantza talde handien buruan. Aginte kabinan, alarma argi gorriak piztuta daude aspalditik, eta sirena jo eta jo dabil gelditu gabe. Espazio ontziko matxinada ez da gazte nahiera bat; bizirik irauteko beharrezkoa dena.

«Ez jainko-jainkosa mitiko baten mandatua aipatuz, ontziko tripulazioaren segurtasunaren beraren izenean baizik, premiazkoa bezain zilegia da matxinada»²².

Gure errealitatean, pertsonak hiltzen dituen
indarkeria da izozmendiaren punta,
eta indarkeria horren bertsiorik mingarri
eta muturrekoena

²² CASADO DA ROCHA, A.; PEREZ, J. A.: *Itoiz, del deber de la desobediencia civil al ecosabotaje*, Pamiela, 1996.

Erakundeen arteko interakzioak aztertzen eta azaltzen saiatzen den literaturak aspaldi ulertu zuen desadostasunek (matxinoak) ondo funtzionatzen ez duten gauzak azpimarratzen dituztela. Haien informazioa balio handikoa dela, errealitate gisa irauteko modukoa. Aldeak kudeatzeak frustrazioz eta xahututako energiak betetako egoerak sortzen jarraitzen du, oraindik ere. Literaturak, hainbeste esperientziaren sistematizazioaren emaitza denez, desadostasunek ikasteko eta hobetzeko aukera ematen duela diosku.

Eskolan eta unibertsitatean hezten eta prestatzen emandako urteetan ikasi dugun historiak gerra handiak, bataila sinbolikoak eta armada boteretsuak aipatzen zituen, eta aipatzen ditu gaur egun ere. Militar ospetsuen biografiak ikasi genituen, haien maitasun kontuak, eta non irabazi eta non galdu zuten. Bien bitartean, beste pertsona eta erakunde batzuek, aurrez idatzitako gidoitik ihes eginda, aliatuak bilatzen zituzten etsaien artean, erresistentzia bilatzen zuten jazarlearen aurrean, eta lankidetzara, jazarriekin.

«Zer jarrera hartu behar dugu Bestearekiko? Nola tratatu? Gerta daiteke horren ondorioz borroka (...) edo gerra gertatzea. Imajina daitezkeen artxibo guztietan ondorio horien frogak erruz daude, eta haien fede ematen dute mundu osoan sakabanatutako bataila eremu eta hondar kontaezinek. (...) Baina, halaber, gerta daiteke gure familiak/tribuak (...) Besteengandik isolatzeko, erretinatze eta blindatzeko erabakia hartzea. Denboraren poderioz (...), hainbat eraikin egin dira munduan erabaki horri jarraituz; besteak beste, Txinako Harresi Handia, Babiloniako dorreak eta ateak, (...) eta Inken harrizko hormak. Zorionez, giza esperientziaren beste jokabide mota baten frogak ere barra-barra daude planeta osoan zehar sakabanatuta. Lankidetzaren adierazgarriak dira. Merkatuen eta itsas eta ibai portuen aztarnak dira, eta agorak eta santutegiak zeuden lekuak; izan ere, antzinako zenbait unibertsitateen eta akademiaren egoitzen hondarrak ikus daitezke gaur egun»²³.

Desobediencia zibila

1846ko udan, Henry David Thoreau²⁴ filosofoa atxilotu eta Concord-eko (Massachussets) espetxean sartu zuten, zergak ordaintzeari uko egiteagatik. Esklabotza erregimenari eutsi eta gerra bidegabea (besteak beste, Estatu Batuek Mexikoren aurka deklaraturakoa) ekiten zien estatu bati laguntzeari egin zion uko.

²³ KAPUSCINSKI, R.: *Encuentro con el otro*, Crónicas Anagrama.

²⁴ http://es.wikipedia.org/wiki/Henry_David_Thoreau

Itxuraz, Thorearen ekintza oso ahula zen espetxean sartu zuen indarrarekin alderatuta, baina erantzun moduko bat izan zen, «ez dago zer egiterik, sistemaren aurka borrokatzea ezinezkoa da» esaten duen/zuen ororentzat.

Thorearen jarrera pertsonal hori bat zetorren errealitateaz zuen pertzepzioarekin. Esperientzia horri buruz hausnartu ondoren, *Resistance to Civil Government* izenburuko manifestu batean bildu zuen. Espainian, *El deber de la resistencia civil* izenburuarekin itzuli zuten. «(...) Norbait bidegabeki espetxeratzen duen gobernu baten pean, zuzenen leku egokia ere espetxea da...»²⁵.

Desobedientzia zibilaren lehen definizioetako baten arabera, «desobedientzia zibileko ekintzek, halakotzat hartzeko, ilegalak izan behar dute, eta publikoki, indarkeriarik gabe eta kontzienteki gobernuaren lege, politika eta erabakiak (edo haietako bat) zapuzteko asmoarekin eginak»²⁶. Testu beretik, beste definizio batzuk ere atera daitezke. Testu horretan, Solidarios con Itoiz mugimenduko zenbait kidek 1996an egindako ekintza aztertzen da (zerra mekanikoak erabiliz, presa eraikitzeko hormigoia garraiatzeko erabiltzen zen teleferikoaren kableak moztu zituzten), eta horrez gain, indarkeria zer den eta zer ez den eztabaidatzen da. Halaber, ondorio hau lortzen da: desobedientzia zibilak, bere definizioan, nolabaiteko indarkeria mailari eusten dio.

Thorearen hausnarketek indarra dute, bizipenaren ondoren idatzitako letren indarra, frogatutako alternatibaren indarra eta indarkeria erabili gabe erakutsitako desakordiorik sakonenaren kanalizazioaren indarra. Testu hori eta beste batzuk —besteak beste, *Walden* izenburukoa oso gomendagarria da— inspirazio, probokazio eta kontraste gisa balio izan dute, eta balio dute oraindik ere. Mahatma Ghandik²⁷ Thorearen manifestua irakurri zuen, Hego Afrikako espetxe batean preso zegoela. Herrialde horretan bizi ziren 150.000 aberkideren baino gehiagoren eskubide zibilen alde borrokatzeagatik zegoen preso, hinduak baztertzen zituzten legeen kontra borrokatzeagatik, alegia. 22 urtez borrokatu zen erresistentzia eta desobedientzia zibileko estrategiak erabiliz: grebak eginez, erregistro txartelak errez, baimenik gabe salerosketan arituz...

Zer jarrera hartu behar dugu Bestearekiko? Nola tratatu?

²⁵ THOREAU, H. D.: *Sobre el deber de la desobediencia civil*, Iralka, 1995.

²⁶ CASADO DA ROCHA, A.; PEREZ, J. A.: *Itoiz, del deber de la desobediencia civil al ecosabotaje*, Pamiela, 1996.

²⁷ http://es.wikipedia.org/wiki/Mahatma_Gandhi

Indarkeria eza

Indarkeria eza banaka edo talde baten barruan izaten den jarrera eta/edo jokabidea da. Ghandik ezagutarazi zuen adierazpide hori. Indarkeria ezak «pertsonearen harmonia hirukoitza (norberaren buruarekin, besteekin eta naturarekin)» bilatzen du, eta «zenbait balioren bizipen koherente, egiazko eta espontaneoaren bidez sortzen da». Hona hemen balio horietako batzuk: berdintasunezko justizia, autonomia solidarioa, norberaren desarma eta utopia onuragarria. Gainera, jarrera hauek burutzea eskatzen du: lankidetzeta, elkarrizketa tolerantea, jolasteko borondatea, desobediencia kritikoa, harreman enpatikoa, integrazio ekologikoa eta hitz egiteko ahalmena²⁸.

Pertsonaren harmonia hirukoitza (norberaren buruarekin, besteekin eta naturarekin) bilatzen du

«Gizarte estrategia eraldatzailea» da, injustiziak aldatzeko helburua duena, baliabideekin eta xedeekin bat eginez. Gatazken aurrean jarrera aktiboa hartzeko modua da, indarkeriarik behar ez duten baliabideak erabiliz²⁹.

Ahimsa hitza wikipedian bilatzen baduzu, hau ikusiko duzu: «hitz sanskritoa da, erlijiozko kontzeptu bati dagokiona, eta indarkeria ezaren eta biziarekiko errespetuaren alde egiten du. Oro har, bakearen eta sentitzeko gai diren izakiekiko errespetuaren ikurtzat hartzen da³⁰. Indiako filosofian, K.a. 800. urtean agertu zen kontzeptu hori lehen aldiz.

Ghandi da ahultasunaren indarraren berrespen absolutua. Berriro ere, Thorearen «alternatiba dago» azaltzen da: sistema bidegabe baten aurka borrokatzea eta garaitzea daukagu. «Indarkeria eza gizakiaren eskura jarritako indarririk handiena da. Gizakiak asmatutako suntsipen armarik eraginkorrena baino eraginkorragoa da». Estrategia politiko horrek ez du pertsona hutsaren hurrengo bihurtu nahi; izan ere, eraso egiten die (kaltegarria ez bada, aldaketa bilatu eta eragiten duelako) ekintza, mito, ideologia eta injustiziei. Indarkeriari uko egiten diotak nabarmen uzten du indarkeriaz jokatzeko duena. Ezinezkoa da bereiztea, kiribiletan, jatorrizko indarkeriaren kontzeptua eta erantzuneko indarkeriarena. Dena biraka dabil.

²⁸ Eusko Jaurlaritzeta eta EDE Fundazioa: *Elkarbizitzarako eta bakerako bezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko bezkuntza ez-formalean*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala, Vitoria-Gasteiz, 2004, 22. or.

²⁹ EGK, EDE Fundazioa eta Urtxintxa: *Bakerako bezkuntzaren euskal liburua*, 1. lib., Euskadiko Gazteriarren Kontseilua, Bilbo, 21-22. or.

³⁰ <http://es.wikipedia.org/wiki/Ahimsa>

Antimilitarismoa³¹

Borroka antimilitarista iturri horietan oinarritu da, eta bere egin ditu ideologia, filosofia eta estrategia.

Herrialde askotan, nahitaezko soldadutza (NO) desagertzean, gatazka eustezin bat amaitu zen. 18 urtetik gorako gizon guztiek beren bizitzako urtebete bat eman behar zuten jarrerarik sarituentzat obediencia otzana zuen egitura piramidal batean. Berdez eta kakiz jantzita, armak erabiltzen, banderei muin egiten eta alegiazko lubakiak konkistatzen ikasi behar zuten.

Errealitatea oso gogorra zen, eta hasiera batean, gaindiezina, eta laster, milaka gaztek ezetz esatea erabaki zuten. Orduan, hasieratik behar pertsonalak gainditu zituen *bataila* bat hasi zen. Mugimendu horren helburua armada, arma eta gerrek segurtasuna bermatzen zutela zalantzan jartzea zen. Irmo sinetsita zeuden gure arazoak konpontzeko armarik ez dela behar.

Urte askoan, erakunde antimilitaristek azken hamarkadako ibilbidearen (akzioak eta erreakzioak) balioa azpimarratzen zuten; objektzioa, NOren iraupen bereko OGZ betetzea, intsumisioa, hirugarren gradua haustea, kuarteletako intsumisioa, tokiko ehunka laguntza talde koordinatuta aritzea... Estatuak bere estrategia aldatzen zuen, jarrera pertsonal eta kolektibo koherenteak lortzen zituen gizarte presioari erantzuteko. Jarrera horiek, militarismoaren aurpegiak itsusia agerian jartzeaz gain, erakargarriak eta dibertigarriak ziren. Erakunde antimilitaristek aktiboki jardun zuten elkarlanean erakunde militarren irudia hondatzen.

Indarkeria ezan oinarritutako zuzeneko ekintza honi dagokio: egiturazko izaera handiagoa duen eta aurrerabidea ulertzeko modu jakin baterako eta *status quo*ari eusteko beharrezkoa den indarkeria eragiteko moduekiko gaitzespen horren zatirik publiko eta kolektiboanari. *Happening* errazak ziren, eta batzuetan, barregarriak, beren indar eta adierazpen osoa antzezen bakarreko eszenatokian hartzen zutenak; izan ere, kuartel militarretan egiten ziren, armen negozioarekin lotutako enpresetan, alegia.

Herrialde askotan, nahitaezko soldadutza
(NO) desagertzean, gatazka eustezin bat
amaitu zen

³¹ Nuevas Generaciones del Partido Popular de Euskadi (NNGG), atal honetako zenbait ideiarekin ados dauden arren, ez daude ados *antimilitarismo* hitzaren erabilerarekin.

Laburbilduz

Indarkeria ezaren historia laburbiltzean, Thoreau hartu behar dugu aintzat: politikari ermitau eta indibidualista hura, bidezkoztat hartzen zuenaren eta nahitaez egin behar zuenaren artean aukeratzeko esperientzia hitzen bidez deskribatzen jakin izan zuena. Ghandi ere hartu beharra dago: nazio bateko liderra, estrategia eta espiritualtasuna lotzen jakin izan zuena, militanteak ezaugarri ukiezinez hornitu zituenak, haiei itzelezko indarra emanez (badakigu indarkeria eza oso indartsua dela proiektu politikoetatik harago doan jarrera pertsonal gisa).

Gure kontinentean, borroka antimilitaristak alderdi dibertigarria eman dio desobedientzia zibilari; alegia, oso estrategia eraginkorra militarren bizimoduaren seriotasunaren aurrean. Eta betiere, ez ditugu ahaztu behar inolako babesik gabe armadei aurre egiteagatik egunero hiltzen diren pertsonak. Borroka antimilitaristak, gainera, mugimenduaren unibertsaltasuna adierazten du, tokiko ekintzekin eta auzoetako laguntza taldeekin bateragarriagoa.

3. Ondorioak eta proposamenak

Lan honetan agertuko diren ondorioak bakearen arloko lantaldeko kideek atera dituzte. Beren iritziak eta ideiak jasotzen ditu, eta EGKtik eta elkarteetatik bakearen alde egiten jarraitzeko egin daitezkeen ekintzak proposatzen dira. Ondorio horiek guztiek argitalpen hau egiteko prozesuaren hasieran sortu diren zenbait galderari erantzun nahi diete: Zergatik da beharrezkoa bakea? Nola sustatu eta gara dezakegu bake kultura gure elkarteetan? Eta zer egin dezakegu EGKtik eta elkarteetatik Euskadin eta gure eguneroko errealitatean bakea sustatzeko eta haren alde lan egiteko?

Denok uste dugu bakea beharrezkoa eta ezinbestekoa dela, gizarte orok nahi duelako bakean bizi, justizia sozialean oinarrituta.

Bakearen alde lan egiteko, beharrezkoa da justizia aktiboki bilatzea, pertsonaren, taldeen eta, oro har, gizartearen garapenari begira. Hortaz, bakearen alde eta bakea lortzeko lanean ahaleginduz gero, komunitatea osatzen dugun pertsonon eta, orokorrean, gizartearen bizi baldintzak hobetzen lagunduko dugu.

Zenbat eta tinkoago saiatu bakearen alde eta bakea lortzeko, orduan eta askatasun, demokrazia, aniztasun eta pluraltasun handiagoa lortuko dugu. Ondo dakigu bakearen alde lan eginez gero gatazkak sortuko direla eta, gatazka horiei aurre egiteko, naturalizat hartu beharko ditugula. Ez dugu uste bakeak indarkeriarik ez egotea soilik eskatzen duenik; izan ere, maila guztietan (afektiboa, ekonomikoa, sexuala, soziala, kulturala, etnikoa, hezkuntzako eta erlijioa) berdintasunean oinarrituko diren pertsonarteko harremanak ere bakearen zati dira. Indarkeria desagertzeak ez dakar berekin bakea, baina beharrezkoa da, gatazka bat konpontzeko prozesuaren hasieratik, indarkeriarik ez egotea.

Gure elkarteetatik, bi ikuspegitatik susta dezakegu bake kultura: barne mailan eta gizarteari begira (kanpo maila).

Gazte elkarteak garen aldetik, nahi dugu sustatzen dugun esku-hartzeak gure hartzaileen eta elkarte osatzen dugun pertsonon eguneroko bizitzan eragina izatea, baita gure ekintza garatzen dugun gizarte ingurunean ere. Gizarteari begira, eta norberak elkarteetan egin dezakeen lana alde batera utzita, bi lan bloke egon daitezke:

1. Klase politikoan akordio kultura sustatzea eta garatzea.
2. Elkarteren batean ez dauden pertsonak sentsibilizatzea, gerta baitaiteke ezein ekintza eta/edo neurri motatan inplikatu nahi ez izatea.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu sindikatu plataformak interes bereziz aintzat hartzea. Izan ere, batzuetan, gai politikoetan soilik jartzen dute arreta, edo sindikatu bakoitzak bere oinarritzko gaietan, eta ez dute helburu komuna kontuan hartzen; hau da, langile guztiak defendatzea.

Nork bere elkartean egin dezakeen lanari edo esku-hartzeari begira, zenbait gauza sistematizatzea proposatzen dugu:

- Elkarreetan ditugun gatazkak aztertzea (pertsionalak, taldekoak eta sozialak).
- Gatazka horiekin lotutako beharrak identifikatzea.
- Egoera horiei heltzeko prozesuak zehaztea.
- Prozesu horiek aldiaren behin ebaluatzea eta doitztea.

Lau prozesu horiek garatzeko, zenbait arlo sortuko dira, landu beharrekoak. Hona hemen: gaitasun sozialak eta emozionalak, parte hartzea, erabaki hartzea, komunikazio eta informazio kanalak, prestakuntza, erreferentzia esparru pertsonalak, rola, itxaropenak, etab.

Bestalde, proposatu nahi dugu EGKk elkarte kideen arteko topaketa guneak sortzen jarraitzea, elkartasun eta lankidetzaren giroan, desakordioa txikitzeko eta jarrerak hurbiltzeko. Gune horietan, ideiak eta iritziak elkarbanatu eta eztabaidatuko lituzkete elkarrekin, eta Euskadiko gatazkaren ondorioak bukatutzat emateko edo arintzeko ekintzak zehaztuko lituzkete. Horrenbestez, gatazka indarkeriarik gabe aztertzeko konpromisoari heldu eta gatazka horrekiko jarrera aktiboa sustatuko litzateke.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko etorkizunerako ekimenak

Konpromiso eta jarrera ildo beretik, EGKk beste topaketa gune batzuk sortuko lituzke, edozein motatako indarkeriaren biktimek (hala nola, gerren, terrorismoaren, arrazakeriaren eta genero indarkeriaren biktimek) eta gazteek elkarrekin hitz egin dezaten, biktimek eta gazteak hurbiltzeko, eta horren bidez, biktimekiko elkartasuna adierazteko aukera izan dezagun.

Bakea lortzeko, ezinbestekoa da justizia soziala, eta horretarako, eraldaketa sozialerako estrategietan sinesten dugu; hots, indarkeria ezan oinarritutako estrategietan, xedeak eta baliabideak bat etortzeko eskatzen duten estrategietan. Bakea lortzeko indarkeria ezan oinarritutako jarreraren alde gaudela adierazi dugu. Gaur egun, lan taldearen barruan, zenbait desadostasun daude, herrialde bat defendatzeko eta erasoaren aurrean haren askatasuna iraunarazteko eskubidea erabiltzeko sistema egokien —eta horien artean armada— erabilera zalantzan jartzeari buruz. Alabaina, denok ados gaude honen inguruan, armak salerostea eta jarduera horren bidez onura ekonomikoa lortzea legez kontrakoa eta onartezina da; are gehiago, arma horiek giza eskubideak urratzen dituzten eskualde edo herrialdeei saltzen bazaizkie.

Hori dela-eta, uste dugu EGKk Espainiako eta Euskadiko azken urteetako arma esportazioei buruzko txosten bat egin beharko lukeela, eta txosten horretan, salerosketak zer bilakaera izan duen eta armak non saldu diren erregistratu. Ondoren, txosten hori Administrazioari emango litzaioke.

Hizpideaken bidez, jakinarazi nahi izan dugu sinetsita gaudela bakea, nahitaez, giza eskubideekiko errespetuarekin eta haien erabilerarekin lotuta dagoela, baita pertsonen arteko berdintasunezko harremanekin (hierarkiarik gabekoak), pertsona desberdinen arteko elkarbizitzarekin, parte hartze sozialarekin eta, azken batean, demokraziari eta gizartea, denok adostutako printzipio eta legeetan oinarrituta, antolatze eta funtzionatzeko moduari dagokion ororekin ere. Interesgarria da, gure aburuz, topaketak sustatzea, beste gizarte erakunde batzuekin bakearen eta demokraziaren arrisku globalei buruz hausnartzeko, eta horri esker, bakea eta demokrazia iraunaraztea ahalbidetuko duten politikak bultzatzeko.

Argitalpen honen ardatzaren harian Euskadin dagoen egoera jakina kontuan hartuta, interesgarritzat jotzen dugu kontseiluak, leku egokian edo erakunde publiko egokian, honako hau aztertzeke ekimen bat aurkeztea: terrorismoaren eta indarkeriaren aurkako borrokan jarduten duten eragile nagusien politika, terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean dauden jarrera guztiak, eta urteetan zehar ETArekin, alderdi politikoen eta erakunde publikoen artean izandako negoziazio, akordio eta elkarriketak. Horren guztiaren berri izatea abiapuntua izan daiteke indarkeriazko adierazpenak deuseztatzeke eta bakean, askatasunean eta justizian biziko den gizarte bat lortzeko; hau da, pertsona eta kolektibo guztien giza eskubideak bermatuko dituen gizarte bat lortzeko.

Proposatzen dugu oroitzapenezko egun jakin batzuetan Kontseiluak idatzizko adierazpenak egitea, indarkeria gaitzesten dugula jakinarazte aldera. Dokumentu horretan, indarkeria ezaren balioak adierazten dituen irudi bat sartu beharko litzateke. Besteak beste, oso interesgarria izan daiteke XX. mendeko genozidiorik larrienen eta gizadiaren aurkako krimenen biktimak gogoan izatea (ez holokaustoarenak soilik). Adierazpen horietan, Kontseiluak jakinarazi beharko luke biktima horiek zergatik eta non hil ziren, eta zeinek hil zituen.

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu bakeaz, giza eskubideen urraketaz eta justiziaz hitz egiteko erabiltzen den hizkuntza ahalik eta zehatzena izatea, azaldu nahi diren ideiak eta transmititu nahi diren mezuak kontzeptuekin bat etortzeko moduan. EGKk adierazpen publikoak egiten ditu, baita hausnarketarako barne dokumentuak ere. Gomendatzen dugu adierazpenetan EGKren estatutuetan zehaztutako balioak zehatz-mehatz agertzea.

Horrez gain, gure ustez, interesgarria izan daiteke filosofia moraleko aditu ospetsuren batek testu horiek berrikustea eta, horri esker, ideiak eta kontzeptuak ahalik hobekien erabiltzea, sentikortzerakoan eta ideia eta kontzeptu horien berri ematerakoan eraginkorrakoak izateko.

4. Bibliografia

- Bakeola eta EGK (2007); “Bakerako eta Elkarbizitzarako Hezkuntza”
- Casado da Rocha eta José Antonio Pérez (1996) “Itoiz; del deber de la desobediencia civil al ecosabotaje”. Editorial Pamiela
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (1992), “Paz en Euskadi”
- EGK, Fundación EDE eta Urtxintxa (1997); “Bakerako Hezkuntzaren Euskal Liburua”, 1 alea; Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (Bilbao)
- EURED (2002): “The EURED Teacher Training Programme. Curriculum of a European Peace Education Course.” Eured, Villach, (Austria)
- Fernández, J: “Ser humano en los conflictos.”(2006) Alianza Editorial. (Madrid)
- Freire, P. (1969): “La educación como práctica de la libertad.” Siglo XXI. (Madrid).
- Freire, P (1970): “Pedagogía del oprimido” Siglo XXI, (Madrid)
- Eusko Jaurlaritza eta EDE Fundazioa (2004); “Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-formalean”. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala (Vitoria-Gasteiz)
- Eusko Jaurlaritza (2007); “Bakerako eta Giza Eskubideetarako Euskal Hezkuntza Plana, (2008-2011)”
- Kapuscinski, R. “Encuentro con el otro” .Crónicas Anagrama
- Lederach J. P. (1998): “Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas”. Bakeaz-Gernika Gogoratuz, Bilbao-Gernika.
- Perez, G. (coord.), (1998); “Educación, paz y derechos humanos. Ensayos y experiencias”. Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de occidente (Mexico)
- Thoreau, H.D. (1995); “Sobre el deber de la desobediencia civil”. Editorial Iralka
http://es.wikipedia.org/wiki/Henry_David_Thoreau
- http://es.wikipedia.org/wiki/Mahatma_Gandhi
- <http://es.wikipedia.org/wiki/Ahimsa>